

BATXILER ARTISTIKOREN MODALITATEKO IKASGAIEN DESKRIPZIOA

Bolumena

Ikasgai honetan hiru dimentsioak lantzen dira, bolumena duten objektuak aztertu eta sortzeko. Prozedura artistikoak ulertu nahi ditugu, ondoren ikasleek haiengandik probetxuzkoak izan daitezkeen baliabideak erabiltzeko. Ikuspuntu analitikoa garatzea dugu helburu, ingurunea aztertzerakoan jarrera aktibo baten ondorioz jasotzea, eta ikaslearen erregistroak zabaltzea adierazpen berriak eta pertsonalak bilatzeko.

Kurtsoa honela laburbildu daiteke: bi dimentsioetatik abiatuz hiru dimentsioetarako bidea egingo da, bide horretan hainbat teknika erabiliz: modelatzea, tailatzea, eraikitzea eta erreproduzitzea moldatzearen eta hustuketaren bidez.

Ikasgai hau tailer moduan planteatzen da eta ez da Selektibitatean aztertzen

Marrazketa teknikoak

Ikasgai teknikoekin oso lotuta dagoen jakintzagaia da hau. Ingeniaritzetan eta arkitektura ikasketetan berebiziko garrantzia duen jakintzagaia baita.

Labur esateko, geometria laua, ukitzaileak, kurba konikoak landuko dira. Ondoren errepresentazio sistemak aztertzen ditugu: sistema diedrikoa, sistema axonometrikoa eta sistema konikoa. Hauekin loturik bistak lantzen dira, nola ez. Azkenean objektuen egiturak ulertzeko eta espazioak zehatz irudikatzeko baliagarria izango da. Esate baterako Marrazketa artistikoan, Bolumen ikasgaietan eta Diseinuan erabilgarria da marrazketa teknikoak.

Ikasgai hau ariketen bidez lantzen da. Arbela digitala eta halakoak baditugu eta ikasleek teknologia berriak aplikatzeko parada ere izaten dute.

Selektibitatean sartzen da.

Adierazpen Grafiko Plastikoak

Ikasgai hau tailer moduan planteaturik dago. Bertan pinturarekin eta arte grafikoekin lotutako teknika eta baliabideak ikasten dira, bai klasikoak zein garaikideak. Teknika hauen artean aipatzeko: Teknika lehorrak, teknika hezeak, teknika alternatibo-esperimentalak, collagea, informatikaren erabilpena... Arte grafikoei dagokienez: linoleoa, punta lehorra eta teknika esperimentalak ere landuko dira, eskola torkuluz hornituta baitago. Artista koadernoan lantzen du ikasle bakoitzak bere burutazio, gustu eta ibilbide sortzaileari lekua emateko.

Ez da selektibitatean aztertzen

Ikus-Entzunezkoen Kultura

Gaur egun oso presentea da irudia: argazkia, bideoa, telebista, ordenagailuen erabilpena...Ikasgai honetan irudiaren azterketa eta ekoizpena landuko dira. Ikus-entzunezkoen lanak ikertuko ditugu, irudi finkoak (argazkiak, komikia, publizitaterako kartelak kasu), mugitzen den irudia (bideoa, zinema, telebista) eta soinua ere. Ikasgai hau informatika gelan lantzen dugu baliabide digitalei erabateko garrantzia eman diegulako. Eskolan ditugun kamera *reflexen* bidez egiten ditugu praktikak, askotan ikasleek izaten dituzten *smartphonak* ere erabiltzen ditugu.

Selektibitatean sartzen da

Marrazketa artistikoa

Ikasgai hau Batxilergo modalitate honetan funtsezkotzat jotzen dugu nahiz eta ez izan derrigorrezkoa. Edozein adierazpen artistiko gauzatzeko erabilgarria den hizkuntza delako marrazketa. Ikasgaia oso praktikoa da, gela tailer bat bezala antolatuta dago eta bi gune ditu: marrazketa-mahaien gunea eta astoen gunea. Artista koadernoan lantzen da, lan pertsonala garatzeko. Apunteak egiten dira eta edozein proiektuk behar dituen irudi mota guztiak lantzen dira: zirriborroa, formen analisia, espazioen irudikapenen kodeak, irudi deskribatzaileak, irudi eraikitzaileak eta irudi adierazkorrak...

Ez da Selektibitatean sartzen.

Artearen Oinarriak

Ikasgai honen helburua historiaren zehar Arteak izan dituen erabilerak eta bilakaera aztertzea da. Arte bere testuinguru historikoan ezagutuko dugu, lanen azterketa eta interpretazio egokia eginez. Helburua litzateke aintzat hartzea arte adierazpen ugari daudela eta egon direla, eta historian zehar nola gauzatu diren adierazpenok gizarte ezberdinetan (funtzio sozialak, erlijiosoak, eta abar). Artearen kodeak eta teknikak ikasi eta ezagutuko dira, eta ikasleak bere begirada kritikoa zorrotzen ikasiko du. Ikasgaia teorikoa da gehien bat baina irudiak eta ikus-entzunezko materialak sarri erabiltzen dira.

Selektibitatean sartzen da.

Diseinua

Diseinua gizakien arazoei aurre egiten dion produktu edo mezuaren lorpenera eramaten gaituen prozesu sortzailea da. Ikasgai honetan helburu hori duten ariketak egingo dira, hau da, objektuak aztertzeaz gain egin egingo ditugu. Diseinu grafikoa (logotipoak, kartelak, liburu azalak...) eta Diseinu Industrialak lantzen dira.

Selektibitatean sartzen da.

*AZPIMARRATUTAKO ikasgaiak dira SELEKTIBITATEAN SARTZEN DIRENAK.

Ikusi EHUren ponderazio taulak.